

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Areatzako Udala**

Kultur, kirol eta arlo sozialeko ekintzetarako dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 369589.

Kultur, kirol eta arlo sozialeko ekintzetarako diru-laguntzak arautzen dituen Areatzako udal oinarriek xedatutakoa betez 2017ko urtean dirulaguntzak eskatzeko epea zabalduko da.

Deialdi honen xehetasun eta baldintzak 2017ko azaroaren 3an Areatzako udaleko Osoko Bilkurak onartutako laguntzak arautzen dituzten oinarriek xedatzen dituzte.

Eskabide guztiak Udal erregistroaren bitartez aurkeztu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun naturaleko epean.

Eta hau guztia guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Areatzan, 2017ko azaroaren 6an. — Alkatea, Asier García Artetxe